

Bertaratutako kideak:

Sonia Rivas Borrell.

Unibertsitateen ordezkaria (Nafarroako Unibertsitatea)

Mari Luz Sanz Escudero

Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria (CERMIN)

Pedro Rascón Macías

Aitortutako ospea duen pertsona

Pablo Arriazu Amat

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Gil Sevillano González

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Josu Reparaz Leiza

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (Nafarroako Ikastolen Elkarte)

María Rodríguez Morán

Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)

Laura Sanzol Olleta

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)

Begoña Unzué Vela

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

Ignacio M^a Iraizoz Zubeldia

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

Maite Pellejero Olcoz

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria

Arantxa Ruiz Vidorreta

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS)

Santiago Álvarez Folgueras

Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)

M^a Soledad Garjón López

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (AFAPNA)

Mikel Rodríguez Aguirreche

Enpresarien elkartearen ordezkaria.

Iruñean, 2021eko apirilaren 28ko 16:55ean, Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitzan, Manuel Martín Iglesias jauna kontseiluburu dela, alboan adierazitako kideak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola jauna idazkari dela, honako gai-zerrenda honekin:

1. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.
2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.
3. Hezkuntzarako COVID-19rako koordinazio batzorde teknikoa.
4. 2/2021 Irizpenaren zirriborroa.
5. 3/2021 Irizpenaren zirriborroa.
6. 4/2021 Irizpenaren zirriborroa.
7. 5/2021 Irizpenaren zirriborroa.
8. Galderak eta eskaerak.

Jabi Arakama Urtiaga

Nafarroako Parlamentuaren
ordezkaria (Geroa Bai).

Cristina Bayona Saez

Unibertsitateen ordezkaria (NUP).

María Teresa Módol Betriu

Ikasleen Gurasoen Elkarte
ordezkaria (CONCAPA).

Tomás Rodríguez Garraza

Hezkuntza Administrazioaren
ordezkaria

Arantza Zuriarrain Íñiguez

Hezkuntza Administrazioaren
ordezkaria

M^a José Anaut Couso

Sindikatuaren ordezkaria (UGT)

Germán Chocarro Garbayo

Ikasleen Gurasoen Elkarte
Federazioen ordezkaria (BRITILA)

Iosu Mena Sarasola

Ikastetxe publikoetako zuzendarien
ordezkaria

Ezin etorria adierazi dute:

Marta Díez Napal

Ikasleen Gurasoen Elkarte
Federazioen ordezkaria
(SORTZEN)

Lourdes Larunbe Arretxe

Ikastetxeetako
Administrazio eta Zerbitzuetako
langileen ordezkaria

Ez dira bertaratu:

Carmela Muñoz Ventura

Ikastetxe pribatuetako
irakasleen ordezkaria (FETE-UGT)

Patricia Fanlo Mateo

Nafarroako Parlamentuaren
ordezkaria (I-E)

Mario Fabo Caleo

Toki entitateen ordezkaria

Mikel Lizaso Odriozola

Ikastetxe publikoetako irakasleen
ordezkaria (LAB)

Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe

Toki entitateen ordezkaria

Ainara González Rubio

Berdintasunaren alde lan egiten duten
elkarteen ordezkaria

1. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea egin behar duten aurreko bilkuraren aktari buruzko alegaziorik edo iruzkinik.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.

Kontseiluburuak labur azaldu du zer parte-hartze izan duen Eskola Kontseiluaren ekitaldi eta bileretan, 2021eko martxoaren 3tik 2021eko apirilaren 28ra bitartean.

3. Hezkuntzarako COVID-19rako koordinazio batzorde teknikoa.

Kontseiluburuak jakinarazi du 2021eko martxoaren 16an eta apirilaren 21ean COVID-19rako koordinazio batzorde teknikoaren zortzigarren eta bederatzigarren bilerak egin direla, hurrenez hurren, eta bilera horietan COVID-19aren pandemiaren ondorioz ikastetxeetan gaur egun dagoen egoera aztertu dela.

4. 2/2021 Irizpenaren zirriborroa.

Kontseiluburuak adierazi du, testuari zuzenketarik aurkeztu ez zaionez, 2/2021 Irizpena bozkatzea proposatzen duela.

Bertaratutako kideek aho batez onetsi dute.

5. 3/2021 Irizpenaren zirriborroa.

Kontseiluburuak proposatu du kideen esku-hartzeak laburrak eta zehatzak izatea, irizpenaren bozketen izapideak arintzeko. Halaber, aurkeztutako zuzenketei kolore ezberdinak eman zaizkienez, kolore horien funtzioa azaldu du, eta Batzorde Iraunkorrak onartutako zuzenketak onetsitzat jotzea proposatu du.

Proposamena onartu da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

Aurrekoaren ondorioz, aho batez onetsi dira 1, 16, 19 eta 20 zenbakiko zuzenketak.

Kontseiluburuak proposatu du, halaber, Batzorde Iraunkorrak baztertutako zuzenketak eztabaidatzea eta eduki bereko edo antzeko edukia duten zuzenketak multzoka bozkatzea.

Proposamena onartu da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

Aurkeztutako zuzenketak multzoka eztabaidatu eta bozkatu dira. Hona hemen emaitza:

Zk.	EMAITZA	BOZKETA
2	Onetsia	11 boto alde, 7 boto aurka eta 3 abstentzio
3	Ezetsia	7 boto alde, 14 boto aurka eta 1 abstentzio
4	Ezetsia	1 boto alde, 15 boto aurka eta 5 abstentzio
5	Ezetsia	4 boto alde, 14 boto aurka eta 6 abstentzio
6	Ezetsia	5 boto alde, 17 boto aurka eta 3 abstentzio
7	Ezetsia	1 boto alde, 23 boto aurka eta 1 abstentzio
8	Ezetsia	3 boto alde, 12 boto aurka eta 9 abstentzio
9	Ezetsia	0 boto alde, 23 boto aurka eta 2 abstentzio
10	Ezetsia	1 boto alde, 25 boto aurka eta 0 abstentzio
11	Ezetsia	10 boto alde, 14 boto aurka eta 0 abstentzio
12	Ezetsia	6 boto alde, 18 boto aurka eta 0 abstentzio
13	Ezetsia	6 boto alde, 17 boto aurka eta 0 abstentzio
14	Ezetsia	0 boto alde, 17 boto aurka eta 0 abstentzio
15	Baztertua	
17	Onetsia	11 boto alde, 7 boto aurka eta 3 abstentzio
18	Ezetsia	0 boto alde, 18 boto aurka eta 3 abstentzio
21	Ezetsia	0 boto alde, 18 boto aurka eta 3 abstentzio

Kontseiluburuak eskatu du irizpenaren testua bozkatzeko, eta honako emaitza honekin onetsi da: 21 boto alde, 0 boto aurka eta 2 abstentzio.

6. 4/2021 Irizpenaren zirriborroa.

Kontseiluburuak proposatu du Batzorde Iraunkorrek onartutako bi zuzenketak onartzea, eta 4/2021 Irizpenaren testua bozkatzeko eskatu du.

Aurkeztutako bi zuzenketak eta 4/2021 Irizpenaren testua onartu dira, bertaratutako kideek aho batez onartu ere.

7. 5/2021 Irizpenaren zirriborroa.

Kontseiluburuak proposatu du Batzorde Iraunkorrek onartutako zuzenketak onartzea.

Bertaratutako kideek aho batez onartu dituzte 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9 zenbakiko zuzenketak.

11 eta 12 zenbakiko zuzenketak bozkatu dira, eta ezetsi egin dira, emaitza honekin: aldeko 5 boto, aurkako 16 eta 2 abstentzio.

Kontseiluburuak adierazi du 10 zenbakiko zuzenketa ez dela zuzenketa bat, eta, beraz, ez onartutzat jotzen dela.

Irizpenaren testua bozkatu da, eta bertaratutako kideek aho batez onartu dute.

8. Galderak eta eskaerak.

Kontseiluburuak hitza hartu du, eta adierazi du aztertzen ari direla Nafarroako Eskola Kontseiluan lantalde berri bat sortzea, COVID-19rako koordinazio lantaldearen antzekoa. Lantalde hori "Talentuaren Mahaia" izanen da, Nafarroako Gobernuko hainbat departamentutako langileek eta Nafarroako Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko kideek osatuko dute, eta Eskola Kontseiluko beste kide batzuek ere parte hartzen ahalko dute horretan.

Laura Sanzolek berretsi egin du Nafarroako Eskola Kontseiluaren araudia aldatzeko proposamena, kide titularrak eta ordezkioak gehitzeko, horrela Kontseiluaren beraren gaiak kudeatzeko prozesuan parte-hartze handiagoa egonien delakoan.

Azagran gertatutako genero-indarkeriaren kasuari dagokionez, Germán Chocarrok Eskola Kontseiluko kideei eskatu die azkar erantzun diezaietela kasu horiei, gaitzespen-agiri baten bidez.

Kontseiluburuak adierazi dio bere ustez kasu horiek ez direla sartzen Eskola Kontseiluaren eskumen-eremuan, eta, nolanahi ere, erantzunak orokorra izan beharko lukeela, eta ez soilik hezkuntza-eremuan eragina duen genero-indarkeriaren kasuetarako.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren kideen parte-hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 18:52an, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.